



XII. KATALOGOA



XII.01. KONTSIDERAZIO OROKORRAK

Plan Orokorraren zehaztapenen dokumentu osagarri gisa eta LLTB-1976ko 25, 42 eta 56. artikuluetan, LLTB-1992ko 124.1, 124.3 eta 133. artikuluetan eta PEko 86 eta 87. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etoriz, Errenteriako Udal Mugartean gaur egungo eraikitako elementuen eta espazio eta elementu naturalen zerrenda biltzen duen Katalogoa formulatzen da, euren interes artistiko, kultural, historiko edo naturalistikoa dela-eta babes berezia behar dutenak, euren gain esku-hartze suntsigarri edo hondagarririk ez egiteko moduan.

Hirigune Historikoa Birgaitzeko Plan Berezia jada babes berezia izan duten elementu guztiek osatuko dute Katalogo hau, eta beste hainbat elementu gaineratzen ditu, Plan Bereziaren mugaketan zein beste zenbait esparrutan kokaturikoak.

Oro har, Katalogoan barne harturiko elementuek ezin izango dituzte esku-hartze suntsigarri edo hondagarririk izan, eta baimendu ahal izango dira xedetzat eranskinak edo baliorik gabeko elementuak edo haren jatorrizko izaera hutsaltzen dutenak kentzea dutenak. Era berean, haien handitzeak baimendu ahal izango dira, dagokion aplikatzeko araudian ezartzen den moduan, betiere esku-hartzeak haien funtsezko balioak errespetatzen baditu.

Plan Orokorra garatuz Katalogaturiko Ondarea Babesteko Plan Berezia formulatuko da, babesteko araudia ezarriko duena, katalogaturiko elementu bakoitzerako babesteko berriazko neurriak zehaztuz eta zehazki erregulatuz esku-hartze posiblearen parametroak. Horretaz gain, Plan Bereziak katalogaturiko elementuen zerrenda osatu ahal izango du arazoibidean.

Errenteria, 2004ko apirila
Plan Orokorraren Bulegoko Zuzendaria

Sin. Enrique Ponte Ordoqui